

LEHORREKO EKOSISTEMETAKO BIZITZA



IKASLEEN ONDORIOAK,
PROPOSAMENAK ETA
KONPROMISOAK



Proiektuaren I. ikasturtea
2024/2025

Arratsalde on guztioi!

Gaur, hemen bildu garen guztiok, Arrasateko Herri Eskolako, Institutuko eta Arizmendi Ikastolako (Gazteluondo, Arimazubi, Santa Teresa eta Gaztelupe guneeetako) ikasleak gara. Gaurko ekitaldian gure ikastetxeetan aurtengo ikasturtean landu dugun lanaren berri ematera gatoz, Eskolako Agenda 2030 egitasmoaren baitan egin dugun lana, hain zuzen ere.

6 eta 18 urte bitarteko ikasle guztiok parte hartu dugu ekimen honetan. Taldeka aritu gara, irakasleen laguntzaz, eta elkarlanean egin ditugu hainbat jarduera eta dinamika, gure ingurunea eta etorkizuna hobetzen laguntzeko helburuarekin. Gure ahaleginaren bidez, Arrasateko herria jasangarriagoa izatea nahi dugu, eta gure esku dagoen guztia egiten ari gara horretarako. Egiten dugun lan xumeak ere badu eragina, eta horretaz jabetuta gaude.

Eskolako Agenda 2030 egitasmoa Garapen Jasangarrirako Helburuekin lotuta dago. 2015. urtean, Nazio Batuen Erakundearen goi-bileran, munduko estatu kideek Garapen Jasangarrirako 2030 Agenda onartu zuten. Dokumentu horrek 17 helburu nagusi jasotzen ditu, mundu bidezkoago, solidarioago eta iraunkorrago bat lortzeko. Helburu horiek pobrezia mundutik kentzea, desberdintasunak gutxitzea, justizia soziala indartzea eta klima-aldaketaren aurka borrokatzea bezalako erronka globalak jorratzen dituzte.

Gure eskoletan, urte osoan zehar, Agenda horren inguruko kontzientzia landu dugu. Aurten, bereziki, Garapen Iraunkorreko 15. helburuari erreparatu diogu: Lehorreko Ekosistemetak bizitza. Gai hori funtsezkoa da egungo eta etorkizuneko erronkei aurre egiteko.



Lan asko egin dugu ikasturte honetan: hainbat tailer, hitzaldi, diagnostiko, proposamen eta jarduera gauzatu ditugu bai ikastetxe barruan, bai Ingurumen Eskolaren laguntzarekin, baita Arrasateko kaleetan eta espazio publikoetan ere. Herritar gisa dugun ardura praktikan jartzeko aukera izan dugu, eta hori oso aberasgarria izan da guztiontzat.

Zuek ideia bat izan dezazuen, hona hemen egindako jardueren adibide batzuk, zerrenda batean laburtuta:

- Arrasaten ditugun baso ekosistemak hobeto ezagutzeko hainbat ibilaldi didaktiko eta behaketa-saio egin ditugu. Besteak beste, Monterron eta Santa Barbarako berdeguneak bisitatu ditugu, baita Udako artadia, Hidalgobasoko hariztia eta erreka ertzetan dauden haltzadiak. Ibilaldi horietan ekosistema bakoitzaren ezaugarriak eta balioa aztertu ditugu.
- Gure inguruko mendiak ezagutzen ere jardun gara, eta horretarako hainbat irteera egin ditugu Muru, Kurtzetxiki eta Anporreta bezalako tokietara. Ingurune hauetan ekosistemen aniztasuna eta paisaiaren moldaketa aztertu ditugu.
- Hegaztien behaketa egin dugu ekosistema horietan, eta horri esker gizakiak naturan eragiten dituen kalteak identifikatzeko aukera izan dugu.
- Udaltzeko artadiaren egoera ekologikoa sakonago aztertzen aritu gara, landarediaren eta faunaren egoera aztertuz.
- Egur landaketak ustiatzeko moduak lurzorua galeran nola eragiten duen ulertzeko, esperimentu erraz batzuk egin ditugu.



- Zuhaitz landaketak egin ditugu gure herriko hainbat gunetan. Ekintza horien helburua izan da basoen biodibertsitatea handitzea eta espazio degradatuak leheneratzen laguntzea. Landatutako espezieak autoktonoak izan dira.
- Gure herriko ekosistemak leheneratzeko azken urteetan egin diren proiektuak ezagutu ditugu: San Balerio, Etxezarreta, Hidalgobaso eta Antoniña inguruko berreskuratze lanak, adibidez. Horien inguruko ideiak jaso ditugu eta ingurune gehiago nola lehenera daitezkeen proposatu dugu.
- Desagertzeko arriskuan dauden fauna espezieen inguruko ikerketa txikiak egin ditugu, hala nola bisoi europarra, baso-saguzarra eta arkanbelea. Haien habitata, mehatxuak eta kontserbazio-neurriak aztertu ditugu.
- Espezie exotiko inbaditzaileak identifikatzen ikasi dugu, eta gure inguruan eragin handiena dutenak zeintzuk diren ikertu dugu: sasiarkazia, panpa belarra, Asiako liztorra, seinaledun karramarroa eta Floridako dordoka, besteak beste. Hauek ekosistemetan duten eragina ulertzen saiatu gara.
- Baso ekosistema osasuntsuak izateak gure osasun fisiko eta mentala nola hobetzen duen aztertzeko tailerrak egin ditugu. Bertan, ongizatearen eta naturaren arteko loturak landu ditugu.

- Udalatxeko dokumentala ikusi dugu gelan, eta bere lanketa egin dugu taldeka. Dokumentalak gure inguruko naturaren garrantziaz eta kontserbazioaren premiaz kontzientziatu gaitu.
- Arrasateko azpiegitura berdearen, klima-planaren eta energia-planaren inguruko saioetan parte hartu dugu. Saioaz gain galdetegi bat erantzun dugu, eta gure iritziak eman ditugu, etorkizuneko ekintzetan kontuan hartuak izan daitezzen.
- Gure ikastetxeetako landareak zenbatu, sailkatu eta inbentariatu ditugu. Horri esker, eskola-ingurunekeo biodibertsitatearen egoera ezagutu eta hobekuntza-proposamenak egin ditugu.
- Gure herria jasangarriagoa izan dadin proiektu berriak sortu ditugu, hala nola "espazio berdeak", "kutsadura murriztea" eta "energia berriztagarriak eskolatan". Proiektu hauek ikasleek irudimenetik sortu dira, eta praktikan jartzeko lehen pausoak eman ditugu.
- Arrasateko araztegira egin dugu bisita, eta bertan azaldu digute uraren arazketa prozesua. Horri esker, konturatu gara zein garrantzitsua den ur garbia edukitzea lehorreko ekosistemak osasuntsu mantentzeko. Horrez gain, erreka-eremuko garbiketan parte hartu dugu hainbat ikasle, ingurua garbi mantentzeko konpromisoa hartuz.



Gaur egun, ingurumenak arazo asko ditu, eta horrek gure bizitzan eragin zuzena du. Adibidez, basoak gutxitzen ari dira, animalia batzuk desagertzeko arriskuan daude, eta gure herriko leku batzuk zikin daude edo zaindu gabe daude. Horrek guztiak gure osasunean eta etorkizunean eragiten du.

Horregatik, GJH 15. helburua landu dugu: "Lehorreko ekosistemetako bizitza". Helburu honek gure inguruko natura zaintzea proposatzen du: basoak, zuhaitzak, animaliak, landareak eta mendiak, besteak beste.

Guk, ikasleok, Arrasateko inguruko natur guneak aztertu ditugu: non dauden, zer egoeratan dauden eta zer egin daitekeen hobetzeko. Azterketa horren ondorio batzuk jaso ditugu, proposamen berriak asmatu ditugu eta gure aldetik konpromiso batzuk hartu ditugu natura hobeto zaintzeko.

Ondorengo orrietan, gure diagnostikoaren emaitzak, proposamenak eta gure konpromisoak aurkeztuko dizkizuegu, hiru ataletan banatuta: basoak, berdeguneak eta kaleak. Atal bakoitzean zer ikusi dugun eta zer egin daitekeen kontatuko dizuegu.

BASOAK

Arrasateko basoak txikiak dira eta oso sakabanatuak daude elkarren artean. Arrasaten lur azalera handia dago artifizial bihurtua eta gainera, egur landaketek azalera handia hartzen dute. Egur landaketa asko dago inguru hauetan: Ziorlako balkoian, Muru inguruan, Asuela inguruan,....

Ekosistema ezberdinak aztertu ditugunean konturatu gara fauna basatia gero eta urriagoa dela. Hegaztiak, anfibioak eta beste animalia batzuk geroz eta gutxiago ikusten dira, hala nola, ferra-saguzarra, sai zuria eta mendi-tuntuna.

Oso positibo baloratzen dugu Arrasaten ekosistemak leheneratzeko aurrera eraman diren proiektuak: San Balerion, Hídalgo bason eta Etxezarretan.

San Balerio lur eremuan bertako hariztia berreskuratzen ari da. Zuhaitzak indartsu ikusten dira; anfibioen putzua eta kartela egoera txarrean daude eta berriro hasi dira landare inbaditzaile batzuk agertzen.



Basoak hobetzeko proposamenak

1. Beste leku batzuetan ere baso naturalak berreskuratzeke proiektuak aurrera eramatea, adibidez, Muru inguruan, Udalatx inguruan, Bizkaia etorbidean, Ziorlako balkoian, ...
2. Beste leku batzuetan ere kendu eta kontrolatu landare inbaditzaileak.
3. Kurtzetxikiko harrobi zaharreen dagoen zulo handia berriro natural bihurtzea, natura berreskuratuz eta paisaia atseginagoa sortuz.
4. San Balerioko putzua konpondu eta baita informazio panela.
5. Faunaren migrazio-bideak errespetatzea eta babestea.
6. Babes berezia ematea natura-inguruneetan dauden gune berdeei eta arriskuan dauden espeziei.

BERDEGUNEAK

Bestetik, konturatu gara Arrasateko berdegune txiki askotan Udalak zuhaixka multzo berriak landatu dituela. Horri esker, dagoeneko zuhaixka horiek airea garbitzen laguntzen digute, eta etorkizunean, hazten diren heinean, gure herriko paisaia asko aldatuko da eta askoz berdeagoa eta atseginagoa izango da.

Berdeguneei dagokienez, bi gune garrantzitsu aztertu ditugu sakonago: Monterron parkea eta Santa Barbara parkea. Bi leku horiek nahiko ezagunak eta erabilgarriak dira herritarrentzat, eta gure ustez, natura eta ongizatea uztartzeko toki bikainak dira.

Monterron parkeari dagokionean hauek izan dira gure konklusioak:

- Herriko berdegunerik aberatsena izan daiteke, beheko lorategiaz gain, gure basoetako haritz eta artadietan aurkitzen diren landare espezie asko daude.
- Beheko lorategian zaborra aurkitu dugu askotan. Eta eserleku asko sentitu ditugu faltan.
- Urmael zahar batzuk daude, erabilerarik ez dutenak.
- Zuhaitzen izenak dauzkaten kartel gutxi batzuk ikusi ditugu, zahartuta daudenak.
- Zuhaitz helduak eta zaharrak aurkitu ditugun arren, basa animalien arrasto gutxi aurkitu ditugu. Beharbada, faunarentzat babesleku eta ura falta egon daiteke (zuloak zuhaitzetan, ur putzuak edo urmaelak, hildako zuhaitzak zutik, egur hila lurrean, loreak,...).
- Badaude haritz handi batzuk, ondo zaindu behar ditugunak.
- San Kristobal Monterronekin lotzen den espazioa izanik, naturaz gozatzeko aukera handiak eskaintzen ditu, baina gutxi erabiltzen da,agian, eserlekuak eta zuhaitzak falta direlako.



Santa Barbara parkearen azterketarekin ere oso konklusio interesgarriak atera ditugu:

- Zuhaitz aniztasun handia dago eta jolaserako eremu aparta da. Urmael zahar bat dago, erabilerarik ez duena.
- Basa animalien arrasto gutxi aurkitu ditugu.
- Zuhaitz zahar batzuk ikusi ditugu, gutxi batzuk zulo handiekin. Oso garrantzitsua da hauek mantentzea, ontzarentzat gordeleku apartekoak izan daitezkeelako.

Berdeguneak hobetzeko proposamenak

7. Berdeguneetako zuhaitz zaharrak ondo zaintzea eta babestea garrantzitsua iruditzen zaigu. Zuhaitz horiek ez dute bakarrik itzala ematen edo ederrak izaten: oso garrantzitsuak dira ekosistemarentzat. Horregatik, informazio-kartelak jartzea proposatzen dugu, jendeak jakin dezan zertarako diren hain baliotsuak. Zuhaitz bat hiltzen edo erortzen bada, bertan uztea egur hilarekin bizi diren animalientzat lagungarria da. Hori ere azaldu beharko litzateke kartelen bidez.

8. Faunarentzat babesleku artifizialak jartzea oso garrantzitsua da, bereziki hiriguneetan ez baitute beti lekurik aurkitzen gordetzeko edo ugaltzeko. Horregatik, saguzarrentzat eta hegaztientzat habi-kutxak jartzea proposatzen dugu Monterron, Santa Barbara eta Aldai parkeetan. Horrela, animalia horiek leku seguruak izango lituzkete bizitzeko, eta naturaren oreka mantentzen lagunduko genuke.

9. Parke guztietan aurkitu daitezkeen bizidunen informazioa adierazten duten informazio panelak jartzea. Panel horietan argazkiak, izenak eta datu interesgarriak agertzea.

10. Sta Barbara eta Monterron parkeetako urmaelak konpontzea, ur baliabidea eskaintzeko basa animaliei: hegazti, anfibio, burrunzti, etab.

11. Santa Barbara parkean belardiaren zati batzuk luzatzen uztea. Horrela, tximeletak, erleek eta beste intsektu batzuek janaria eta babesleku gehiago izango lituzkete. Neurri sinple hau oso lagungarria da polinizatzaileentzat, eta parkean biodibertsitate handiagoa izatea lortuko genuke.

12. San Kristobal prestatzea natur aisialdirako eserlekuak eta beste ekipamendu batzuk jarritz.

KALEAK

Kalean ere aritu gara ekosistemetako bizitza aztertzen, eta konturatu gara kaleetan dauden zuhaitzek gure ongizaterako beharrezkoa ematen digutela; hiriko paisaia edertzen dute, itzala ematen dute, airea garbitzen dute, hegaztientzat gordelekuak eskaini, eta.

Baina, ikusi dugu kale askotan ez dagoela zuhaitzik eta daudenak oso gazteak direla gehienetan, beraz, zuhaitzek ematen dizkiguten zerbitzuak (itzala, airea garbitzea,...) falta dira. Horren ondorioz, ingurune artifiziala nagusitzen da, beraz, herritarrek natura edo ekosistemekin daukagun lotura txikia da.

Gure kaleak eta herriko azpiegitura berdea hobetzeko, honako proposamen hauek egin ditugu. Gure ustez, neurri hauek guztiak lagungarri izango lirateke gure herria osasuntsuagoa, atsegina eta seguruagoa bihurtzeko:

Kaleak hobetzeko proposamenak

13. Hiri-baso txikiak sortzea eta kaleetan zuhaitzak landatzea.

14. Kotxeak kale batzuetatik kentzea eta horren ordezu zuhaitzak, loreak eta landareak jartzea. Horrela, kutsadura gutxiago egongo litzateke eta jendeak oinez edo bizikletaz ibiltzeko toki atseginaoak eta seguruagoak izango litzuke.

15. Ibai ertzeko landaretza berreskuratzea. Ibaiaren ingurua tokirik garrantzitsuenetakoa da ekosistemarentzat, eta landare autoktonoak (bertakoak) berrezartzea funtsezkoa da. Horrela, erreka garbiago egongo dira, animalientzako babes handituko da eta ingurunea askoz naturalagoa bihurtuko da.



Gure konpromisoak

Gure aldetik prest gaude ekosistema hauen egoera hobetzeko eta konpromiso hauek hartzeko:

- Mendira goazenean zaborrik ez botatzea.
- Parte hartzea zuhaitz landaketak antolatzen direnean.
- Ekosistemak leheneratzeko ekintzak antolatzen direnean parte hartzea.
- Eskola inguruan zuhaitzak landatzea eta inguruko landarediaren zaintza eta garbiketa egitea.
- Habi kutzak eraiki eta jartzea eta baita kurtsoan zehar mantentze- lanak egitea ere.

Bukatzeo, argi dugu bizitzeko herri jasangarri eta atsegin bat gura dugula eta horretan prest gaude laguntzeko. Gaurko ekintzak biharko etorkizuna eraikitzen du; ez ditzagun gure paisaiak galdu; zaindu dezagun gure ingurua, eta elkarrekin, udalerri berdeago eta osasuntsuago bat sortuko dugu.

Arrasate herri atsegina da jadanik, baina, konturatu gara denon artean gauza asko hobetu ditzakegula.

Hurrengo urteetan ere gure lanean jarraituko dugu. Espero dugu gure ekarpenak lagungarriak izatea.